

GRADU AMAIERAKO, MASTER AMAIERAKO ETA DOKTORETZAKO LANETAN BIZI ZIKLOAREN IKUSPEGIA INTEGRATZEN LAGUNTZEKO ZERBITZUAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

1. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

1.1. Zerbitzuaren helburua:

Zerbitzu honen helburua ekonomia zirkularraren eremuan gradu amaierako, master amaierako edo doktoretzako lanak egiteko laguntza ematea da, bi ildoren bidez:

- Gradu eta master amaierako eta doktoretzako lanak ingurune erreal batean garatzen laguntzea, ikasleak enpresekin konektatuz.
- Tutoretza puntual eta pertsonalizatuko zerbitzu bat eskaintzea, laguntza teknikoa eta orientazioa emateko gai hauetan: zirkulartasuna ebaluatzeko metodologiak, bizi zikloaren analisia, karbono eta ingurumen aztarnen kalkulua eta software espezializatuen erabilera, hala nola Simapro, OpenLCA eta Climate&Circularity Calculator tresna (aurrerantzean, 3C).

Bi zerbitzuak osagarriak dira eta, beraz, batera aplika daitezke.

1.2. Norentzat:

Ekonomia zirkularraren eta ingurumen ebaluazioaren arloko gradu, master edo doktoretza proiektu bat garatzen edo planifikatzen ari diren eta Euskadin bizi diren pertsonak. Zerbitzua, zehazki, hauentzat diseinatuta dago:

- 1) enpresaren arloan gradu edo master amaierako lan bat egin nahi duten baina esleitutako gairik ez duten pertsonak.
- 2) eta gai jakin bat esleituta duten pertsonak, gradu amaierako, master amaierako edo doktoretzako lana egitean orientazio espezifikoak eduki nahi dutenak zirkulartasuna ebaluatzeko metodologiei, bizi zikloaren analisiari, karbono eta ingurumen aztarnen kalkuluari eta software espezializatuen erabilerari buruzko alderdietan (Simapro, OpenLCA eta 3C tresna).

2. ZERBITZUAREN BALDINTZAK

2.1. Zerbitzuaren garapena:

Enpresa batekin lotura egiteko eskatzen bada:

- Basque Circular HUBek euskal enpresek eskainitako gaien zerrenda emango dio onuradunari gradu amaierako, master amaierako edo doktoretzako lan baten esparruan lankidetzan aritzeko.
- Onuradunak intereseko gaiak hautatu ondoren, Basque Circular HUBek gai horretan lankidetzan aritzeko interesa duela baieztatuko du enpresarekin, eta, hala bada, enpresa eta onuraduna harremanetan jarriko ditu. Enpresaren, pertsonaren eta ikastetxearen arteko hitzarmena sinatzea, hala badagokio, ez da Basque Circular HUBen ardura izango.

Tutoretza zerbitzua eskatzen bada:

- Hasieran banakako bilera bat egingo da, proiektuari buruzko datuak berrikusteko eta proiektuaren ikuspegi estrategikoa eta metodologikoa aztertzeko.
- Proiektu bakoitzeko 10 orduko banakako tutoretza eskainiko da gehienez (hasierako bilera barne). Tutoretzak, betiere pertsonalizatuak eta eskaripean eginak, proiektuaren garapenean zehar sortu diren zalantza teknikoak argitzea izango dute helburu, bai ingurumen ebaluazioari dagokionez, bai software espezifikoar erabiltzeari dagokionez (Simapro, OpenLCA eta 3C).

2.2. Iraupena eta erabilgarritasuna:

- Tutoretzak, ahal den guztietan, pertsona eta/edo eragile interesdunari gehien komeni zaion Basque Circular HUBen egoitzan egingo dira. Salbuespen gisa, tutoretzak Microsoft Teams bidez garatu ahal izango dira.
- Tutoretzak astelehenetik ostiralera egin ahal izango dira, Basque Circular HUBen ordutegian: 08:00 - 15:00. Oporrengatik noiz egongo den itxita kontsultatzea gomendatzen da
- Tutoretza bakoitza egiteko, aurrez erreserba egin beharko da, helbide elektroniko honen bidez: basquecircularhub@ihobe.eus.
- Garrantzitsua da kontuan izatea erreserba eskatzeak ez duela esan nahi automatikoki baieztatzen denik; hau da, beharrezkoa izango da Basque Circular HUBen baieztapena jasotzea eskatutako erreserba baliozkotzeko. Baieztapena gehienez ere bi laneguneko epean egingo da.
- Tutorizatutako pertsonak gehienez 10 orduko tutoretza izango du, bere beharren eta tutore arduradunaren prestasunaren arabera banatuta.
- Tutoretza bakoitzak gutxienez 1 ordu eta gehienez 2,5 ordu iraungo du.
- Tutoretzak onuradunaren eta tutorearen prestasunaren arabera programatuko dira aldez aurretik.

- Tutoretzako 10 orduak garatzeko denbora muga ezartzen da, eta ezin izango da zerbitzua hasten den egunetik 6 hilabete gainditu. Garrantzitsua da onuradunek tutoretza orduak ezarritako denbora esparru honen barruan planifikatzea eta eraginkortasunez erabiltzea. Epea luzatzeko edozein eskaera zerbitzuaren ardura duen taldeak baloratu eta baimendu beharko du.

2.3. Zerbitzuaren mugak:

- Tutoretza taldeak ez du egindako lanen dokumentu espezifikorik berrikusiko, ezta lan horiek sortutako emaitzarik edo karakterizazio faktorerik ere.
- Zerbitzua orientazioa eta laguntza teknikoa ematera zuzenduko da, baina ez du inplikaturiko lanetan zuzeneko lanik egitea.
- Zerbitzua ez da gradu amaierako, master amaierako edo doktoretzako proiektuaren planteamendu edo garapenerako laguntza integral bat, eta inola ere ez du ordezkatzeko ikastetxearen tutoretza ofiziala. Zerbitzuak laguntza puntuala eta espezializatua ematen du bizi zikloaren eta zirkulartasunaren arloko ikuspegi estrategikoa bideratzeko, zalantza tekniko espezifikoak argitzeko eta aipaturako tresnak erabiltzen laguntzeko, egindako lanen kalitatea hobetzeko.
- Zerbitzu hau erabiltzeak ez du mugatzen Basque Circular HUBek eskaintako gainerako zerbitzuak erabiltzea.
- Enpresarekiko lotura zerbitzuak ez du bermatzen eskatzaileentzako lanak egongo direnik, ezta proiektua aukeratutako enpresan garatuko denik ere, eta ez du esan nahi Basque Circular HUBek tutoretza zerbitzua automatikoki esleitzen duenik. Tutoretza zerbitzua eskatu nahi bada, formulario honen bidez eskatu beharko da: *(esteka)*.
- Tutoretza zerbitzua aurretik zerbitzuaren onuradun izan den pertsona batek eska dezake berriro, betiere beste proiektu baterako bada. Hala ere, eskura dauden baliabideen arabera, aldeztu aurretik tutoretza zerbitzuaren onuradun izan ez diren pertsonen eskaerak lehenetsiko dira.

2.4. Zerbitzuaren onuradunaren erantzukizunak:

- Zerbitzuaren onuradunak arduratuko dira beren proiektuari buruzko dokumentazio garrantzitsua emateaz eta tutoretzetan zehar landu nahi dituzten zalantzak edo zalantasunak argi planteatzeaz.
- Onuradunek programaturako hitzorduak bete eta tutoretzetarako esleitutako denbora modu egokian erabili beharko dute.
- Tutoretzetan puntualtasunerako denbora muga bat ezartzen da, hau da, gehienez 10 minutuko atzerapena arrazoi justifikaturik gabe. Berandu iritsiz gero, atzerapenaren pareko denbora galduaren politika aplikatuko da.

- Erabiltzaileak programatu den tutoretza bertan behera utzi nahi badu, eskatzen da gutxienez 24 ordu lehenago jakinaraztea. Erreserba egin eta erabiltzailea aldeztatik jakinarazi gabe aurkezten ez bada, zerbitzurako sarbidea eten egingo zaio.
- Onuradunak konpromisoa hartzen du tutoretza prozesua adostutako denboran betetzeko, proiektuarekin jarraitzea eragozten dioten ezinbesteko kasuetan izan ezik. Ezinbesteko kasutzat hartzen dira aurreikusi ezin diren eta proiektua garatzen jarraitzea zailtzen dioten ezohiko egoerak, hala nola gaixotasun larria, premiazko familia egoerak edo antzeko beste gertaera batzuk. Ezinbesteko inguruabarrak agertzen badira, onuradunak ahalik eta azkarren jakinarazi beharko dio zerbitzuaz arduratzen den taldeari.
- Erabiltzaileak konpromisoa hartzen du gradu, master edo doktoretza lanean honako hau adierazteko: *“Proiektu hau Basque Circular HUBen zirkulartasunari buruzko tutoretza zerbitzuak babestu du”*.
- Onuradunak edo enpresak aldeztatik baimena emanda (*Ikusi baimena*), Basque Circular HUBek softwarea erabiltzean sortutako adierazleak erabili ahal izango ditu 3C tresnarako (Climate&Circularity Calculator) karakterizazio faktore berriak sortzeko. Helburu horrekin erabiltzeko edozein informazio modu konfidentzialean tratatuko da eta onuradunaren edo enpresaren jabetza intelektualeko eskubideak errespetatuko dira.
- 3C tresna erabiltzen bada, onuradunak Basque Circular HUBek (*Esteka*) karakterizazio faktoreak eskatzeko eskaintzen duen zerbitzua erabili ahal izango du.

2.5. Konfidentzialtasuna:

- Zerbitzuaren onuradunek emandako informazio guztiaren konfidentzialtasuna lehentasuna da Basque Circular HUBentzat. Informazio horrek, besteak beste, proiektuen datuak, analisien emaitzak, lotutako dokumentuak eta beste edozein informazio sentikor edo konfidentzial hartzen ditu.
- Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, datu pertsonalen tratamendu konfidentziala bermatzeko beharrezko neurriak hartzen direla bermatzen da. Halaber, jakinarazten dizugu zure datuak fitxategi batean sartuko direla zerbitzuaren inpaktuaren jarraipena egiteko, eta sarbide, zuzenketa, ezeztapen eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera duzula, lopd@ihobe.eus helbidean.
- Erabiltzaileek partekatutako datu eta dokumentu guztiak konfidentzialtasun maila gorenarekin kudeatuko dira, eta lhobeko langileek eta zerbitzua ematen zuzenean inplikaturako Basque Circular HUBeko teknikari laguntzaileek soilik eskuratu ahal izango dituzte (zeinek, halaber, lhoberekin konfidentzialtasun akordio bat duten).
- Basque Circular HUBek ez die hirugarrenei informazio konfidentziala jakinaraziko, zabalduko edo lagako.

- Zerbitzuaren onuradunak Basque Circular HUBen egoitzako lan saioetan beste pertsona batzuek partekatzen duten edozein informazioaren konfidentzialtasuna errespetatzeaz ere arduratuko dira.
- Konfidentzialtasun konpromiso horrek indarrean jarraituko du erabiltzaileak zerbitzua erabiltzen utzi ondoren ere, eta, horrela, informazio konfidentziala etengabe babestea ziurtatuko da.

2.6. Zerbitzuaren ebaluazioa:

- Zerbitzua amaitutakoan, zerbitzuaren kalitateari eta erabilgarritasunari buruzko feedbacka emateko eskatuko zaie onuradunei, eskainitako zerbitzua hobetzeko.

3. ESKAERA PROZESUA

Eskabideak urte osoan egongo dira zabalik.

Baldintzak betetzen dituen eskabide bat erregistratzen denean, Basque Circular HUBek onartuko du eta baieztapen mezu bat jasoko da. Zerbitzua elkarren segidako hurrenkeran esleitu da, administrazio publikoak horretarako dituen baliabideak agortu arte.

Eskabideen ebaluazioa gehienez 2 laneguneko epean egingo da, eskaera jasotzen denetik.

Zerbitzuan parte hartzeko interesa duten pertsonak [esteka](#) honen bidez eman ahal izango dute izena.

Gradu amaierako, master amaierako edo doktoretzako lanak egiteko pertsonak hartu nahi dituzten enpresek [esteka](#) honetan adierazi behar dute interesa.

3.1. Formularioa

Eskaerak [formulario](#) honen bidez egingo dira:



Formularioa Basque Circular HUBen webgunearen bidez eskuratu ahal izango da.

4. INFORMAZIO GEHIAGO:

Helbidea: basquecircularhub@ihobe.eus

Telefonoa: 647 940 819

Beste zerbitzu batzuei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu Basque Circular HUBren webgunea:

- Gazteentzako tutoretza-zerbitzua: [Basque Circular Hub – Gazteak](#)